

## BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

### 2361

*AGINDUA, 2012ko maiatzaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan 2012. urtean babes daitezkeen hainbat jardunetarako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak iragartzen dituen.*

Etxebizitza eta lurzoruaren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiaren arabera, nahitaezkoa da urtero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragartzea etxebizitza eta lurzoruaren arloan hainbat laguntza-ildo, aurrekontu-kredituen zenbatekoak finantzarioki estaltzeko.

Gaitutako aurrekontu-kredituak iragarri behar horrek —hasierakoak direla zein eguneratuak direla, betiere kredituak aldatzeko legezko aukeren arabera— herritarrei eman beharreko informazioaren maila hobetzeko asmo nabariari erantzuten dio, haiek baitira laguntza-sistema horien onuradunak.

Badira beste jarduera-ildo batzuk etxebizitza-programan merkatuan zuzeneko esku-hartzeak egitea dakartenak —Sailaren edo haren sozietate publikoen bitartez— lurzoruaren erosketan eta urbanizazioan eta etxebizitzaren eraikuntzan, erosketan eta alokairuan, emaitzak jendaurrean zabaltzeko prozedura espezifikoa eta bereiziak dituztenak (kontratu publikoak, kontratu-programak, lankidetzak-hitzarmenak, eta abar), eta publizitate-mekanismo horretatik kanpo ebazten direnak, berezkoak dituzten beste batzuk dauzkatelako, lege- eta araudi-aginduak tarteko.

Diru-laguntzen politika ugari ere publizitate- eta deialdi-prozedura desberdinak dituzte halaber, banakako deialdi espezifikoa dutenak (esaterako, itunpeko sustapen bateko diru-laguntzen esleipena) edo deialdi publiko bereiziak dituztenak, eta, aldi berean berezkoak (Eraikal, irisgarritasuna, Revive, eta abar).

Hori guztia, betiere diru-laguntzen politikak argitaratzeko mekanismoak beteta —indarrean daudenak, alegia—, baina erreferentziako Agindu honen hedadura-esparrutik kanpo.

Beraz, 2012ko ekitaldirako kredituak iragartzeko baldintzek zuzenean eraginpean hartutako laguntza-politiken esparru zehatza honako hau izango da:

39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa (EHAA, 59. zenbakia, 2008ko martxoaren 28koa).

Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa. Hitzez hitz eta termino beretan errepikatzen du bere 1., 2. eta 3. eskuragarri dauden kredituak urtero iragarri beharra, jarraitu beharreko prozedura formala eta eten horrek bideratzen ari diren espedienteetan duen eraginari buruzko arauketa (EHAA, 18. zenbakia, 2007ko urtarrilaren 25ekoa).

Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, lehenetsunez erregimen orokorreko zein erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzoruaren kostu bidez eskuratzeari dagozkion lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa.

Agindua, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza sustatzeko laguntzei eta alokairua sustatzeko neurriei buruzkoa. Agindu

horren 1., 2. eta 3. xedapen gehigarrietan hitzez hitz eta termino beretan errepikatzen da aurreko paragrafoan azaldutako erregulazioa (EHAA, 222. zenbakia, 2008ko azaroaren 19koa).

Agindua, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzkoa. Honako hau jasotzen du 1. eta 2. xedapen gehigarrietan: erabilitako etxebizitza libreak erostera bideratutako laguntzak finantzatzeko eskuragarri dauden kredituak urtero iragarri beharra; kreditu horiek osatzea eta eguneratzea; laguntza-ematea eten dela iragartzeko jarraitu beharreko prozedura formala, hala badagokio; eta, azkenean, eten horrek bideratzen ari diren espedienteetan duen eragina (EHAA, 203. zenbakia, 2010eko urriaren 21a).

Agindua, 2011ko irailaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzeko dena. (EHAA, 187. zenbakia, 2011ko irailaren 30ekoa).

Agindua, 2011ko azaroaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Agindua aldatzeko dena. (EHAA, 226. zenbakia, 2011ko azaroaren 29koa).

268/2011 Dekretua, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. (EHAA, 247. zenbakia, 2011ko abenduaren 30ekoa).

1/2012 Instrukzioa, otsailaren 6koa, Etxebizitzako Sailburuordea, 2012ko baldintza finantza berriei buruz kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan.

Addenda, 2012ko otsailaren 6koa, Etxebizitza eta Lurzoruaren arloan jarduketa babesgarriei buruz kreditu-erakundeekin izenpetutako finantza-lankidetzarako hitzarmena.

Horren ondorioz, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta etxebizitza eta lurzoruaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, honako hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2012ko ekitaldian etxebizitza eta lurzoruaren arloan diru-laguntza ildoetako finantza-estaldura emateko honako ordainketa- eta konpromiso-kreditu hauek iragartzea:

Babes daitekeen jarduna	2012	2013	2014	2015	Gainerakoak 2036 arte	Guztira
Etxebizitza libre erabilia erostea	100.000					100.000
Birgaitzea	11.500.000	11.640.000				23.140.000
Etxebizitza babestuetara bideratzeko udaletako lurzoru-ondareak sortzea	100.000					100.000
Alokairuaren sustapena	8.327.002	5.038.000	7.595.000			20.960.002
2012ko Finantza Hitzarmenaren interes-tasak sorostea	450.000	2.771.930	5.543.860	4.364.096	47.480.114	60.610.000
GUZTIRAKOAK	20.477.002	19.449.930	13.138.860	4.364.096	47.480.114	104.910.002

Bigarrena.– «Alokairuaren sustapena» epigrafean sartzen diren diru-laguntzak babestekoak diren jardun hauetarako izango dira: salmentarako babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko, bai etxebizitza berriak, bai birgaitutakoak; babestutako alokairurako etxebizitzak sustatzeko; babestutako alokairuan eskaintzeko etxebizitzak erosteko; zuzkidura bizitokiak sustatzeko, eta landa-eremuetan titulartasun publikoko etxebizitzak birgaitu eta alokairuan jartzeko.

Hirugarrena.– «2012ko Finantza Hitzarmenaren sorospenak» epigrafean sorospen-eskubidea duten jardun hauek sartzen dira: babestutako alokairurako etxebizitzaren sustapena; babestutako alokairuan eskaintzeko etxebizitzak erosteko eragiketak; zuzkidura bizitokiaren sustapena, eta lurzorua kostu bidez eskuratzeko eragiketak egiteko, edozein herri-administrazioaren lurzoru-ondare publikoak eratzeko, ondoren, ahal dela, babes publikoko sustapenera bideratzeko.

Laugarrena.– 2012ko ekitaldiaren kontura eman beharreko laguntzen guztizko zenbatekoak ezin izango ditu gainditu aurreko atalean adierazitako diru kopuruak edo indarrean dagoen legedi aplikagarriari jarraiki aurrekontu-aldaketarik onartuz gero, kopuru horiek izango duten igoeraren ondoriozko kopurua. Aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren aginduaren bidez.

Horrenbestez, zenbateko hori agortu ondoren, ez da laguntza gehiago emango, eta kreditu-agortze hori Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Agindu bidez jakinaraziko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Bosgarrena.– Edonola ere, Agindu honetan adierazitako etxebizitza eta lurzoruaren arloko araudiaren arabera baldintza guztiak betetzen dituzten eta baliabide ekonomiko ezagatik soilik ukatzen diren eskaerak, hurrengo ekitaldi ekonomikoan ebatzi ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak Lurralde Ordezkaritzara edo dena delako zuzendaritza kudeatzaileira idazki bat bidaltzen badu, eskaerari baldintza beretan eusteko asmoa duela adierazita.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 23a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.